

Herri bakoitzak bere inauteriak

AMAIA ELIZONDO
Donostia

Heldu da garaia mozo-
rroa jantzi eta kalera ir-
teteke. Ostegunean
Euskal Herriko txoko
askotan inauteriak ospatzen hasi-
ko dira, jai giro bikainean, gainera.
Inauteriak ospatzeko modu ezber-
dinak daude herri bakoitzean, tra-
dizioak ere halakoak izaten baitira.
Tolosako inauteriak (Gipuz-
koa) ezagunenetakoa badira ere,
herri askotan antolatzen dituzte
egitarau bereziak. Konpartsa uga-
ri ibiliko dira asteburuan kale guz-
tiak alaitzen. Bitartean, askok eta
askok aitzakia ederra izango dute
beren burua mozorrotzeko. Izan
ere, lotsa guztiak alde batera utzita
mota guztietako jantziak janzteko
prest azaltzen dira lagun asko.
Aurten, urtea hasi berritan iritsi
dira inauteriak, beraz, mozorroa
prestatzeko denbora askorik ez da
izan.

Herri guztietan egitarau zabala
prestatzen dute inauterietarako.
Kolorea eta erritmo bizia nagusi
izaten da kaleetan. Dena dela,
inauteriak ospatzeko modu ezber-
dinak daude Euskal Herrian. To-
losako karroza eta mozorroak ospe-
tsuak badira ere, ez dira atzean ge-
ratzen Altsasuko Momotxorroak
(Nafarroa) edo Lantzeko (Nafa-
rroa) Miel Otxinen azken zigorra.
Mozorroez gain, herri askotan per-
tsonaia bereziak dituzte inaute-
riak irudikatzen. Gainera, herri
bakoitzak bere tradizioak ditu, eta
horiek kontuan hartuta presta-
tzen dituzte jaiak.

Tolosa

Karrozak eta konpartsak
kaleetan

Ostegun gizenarekin hasiko dira
inauteriak Tolosan, tradizioak dio-
en moduan. Jaien hasierarekin su-
ziria jaurtiko dute eguerdian, Pla-
za Zaharrean. Dena dela, igande-
tik asteartea bitartean izango dira
egun nagusienak. Izan ere, igande-
an, 11:00etan, karroza eta konpar-
tsen artean hasiko da Tolosako ka-
leetan barrena. Astelehenean eta
asteartean ere irtengo dira. Egu-
nero karroza xelebreak eta mozo-
rro harrigarriak ikusteko aukera
izango da. Horrez gain, gaurtik as-
teartera, 16:30ean, zezenak izango
dira zezen-plazan. Bertan, txaran-
gak eta txistulariak ariko dira
ikuskizuna alaitzen. Gero, kalejira
izango da. Bestalde, azken urtee-
tan bezala, txosnagunea Euskal
Herria plazan izango da. Gaurtik
hasita, gauero kontzertuak anto-
latu dituzte. Gaur, DJ Fer ariko da
giroa alaitzen. Bihar, berriz, Desor-
dutan eta Inershow taldeek kon-
zertua emango dute. Larunbate-
an, DJ Bullek alaituko du plaza,
eta, igandean, Despervicio eta
Kantafloor taldeen emanaldia izan-

Bihartik aurrera Euskal
Herriko herri askotan
hasiko dira inauteriak;
herri bakoitzak bere
ohiturak ditu eta
inauteriak ospatzeko
modu ezberdinak daude.

go da. Gero, Aritz Sound System-
en doinuekin jai giroak aurrera ja-
rraituko du.

Lesaka

Zaku zaharren kalejira

Ostegun gizenarekin abiatzen
dira Lesakan ere inauteriak (Nafa-
rroa), aurten. Gaur, Arrautza Egu-
na ospatuko dute. Hala, herriko
haurrak etxez etxe ibiliko dira
arrautza eskean. Eta igande arte
ez da berriro ekitaldirik izango.
Izan ere, igandea izaten da egun
nagusia. 17:00etan, trikitixa talde-
ak lagunduta eta Plaza Zaharretik
abiatuta, Zaku zahar txikiak kale-

jira izango da. 18:00etan, berriz,
Musika Bandak lagunduta Zaku
zaharren kalejira antolatu dute.
Zaku zaharrek aurpegia trapu ba-
tekin estalia izaten dute. Buruan
lastozko txapela daramate, eta, es-
kuetan, pixontzia. Gorputzean, be-
rriz, zaku zahar bat eramaten dute
jantzita. Tradizioa jarraituz, zaku
zaharrak izaten dira inauterietako
protagonista nagusiak. Inauteriak
asteartean amaituko dira Lesakan
arrautzen eskearekin.

Mundaka

Atorren eguna

Igandea izaten da inauterietako

egunik ikusgarriena Mundakan
(Bizkaia). Izan ere, uholde zuri ba-
tek hartzen ditu herriko kaleak.
Gizonak emakumeen azpiko gona
zuriak edo oihal zuriak jantzita
ibiltzen dira, eta burua ohe buruko
izarekin estaltzen dute. Batzuek
bibotea margotzen dute aurpe-
gian. Atorren eguna aspaldikoa
da, eta urtero tradizioari eusten
diote herriko biztanleek. Igande
arratsaldean, berriz, emakumeak
laminaz mozorrotuta ateratzen
dira kalera. Hala, igande iluntze-
an, atorrak eta lamiak elkartzen
dira inauteriak amaitzeko.

Zalduondo

Markitos, pertsonaia nagusia

Igande eguerdian, galdi baten gai-
nean jarri, eta Markitos pertso-
naiari paseoa ematen diote herri-
ko Zalduondon barna (Araba).
Bazkaldu eta gero, beste hainbat
pertsonek izaten dituzte inguruan
Markitosek. Atsoa eta agurea,
errauts-banatzalea eta errauts-
garbitzalea, hartza... Predikariak
sermoia botako dio Markitosi, ur-
tean gertatutako gauza txarren
bat leporatuz, eta, gero, su emango
diote. 33 urte igaro dira herriarrek
tradizioari eusten diotela. Izan ere,
Francoren diktaduran inauteriak
debekatu zituzten. Ostegunean
hasiko dira inauteriak eta aste-
artea bitartean iraungo dute. Jaieta-
ko beste ekitaldi ikusgarria karro-
zen desfilea izaten da, eta igande-
an bertan egingo dute. Egun osoan
karrozak herriko kaleetan zehar
ibiliko dira.



Uztartitzeko inauterien barruan egindako Hartzaro ikuskizuna. GAIZAKOIZ



Mundakako inauterietan emakumeak lami bihurtzen dira eta kalez kale ibiltzen dira giroa alaitzen. MONIKA DEL VALLE / ARCAZKI PRESS